



ERANSKINA

Zumaia herrian, 36 urtetik gorako pertsonen etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza emateko deialdia 2026 urterako

Convocatoria para el año 2026 de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Zumaia, destinadas a personas mayores de 36 años

1. artikulua. Xedea eta epe lagungarria.

Artículo 1. Objeto y periodo subvencionable.

Laguntza hauen xedea da Zumaia udalerrian alokairu-erregimeneko etxebizitza bat duten **36 urtetik gorako pertsonen** ohiko bizileku gisa erabiltzen duten etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean.

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir en parte del pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de **personas mayores de 36 años**, que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler en el municipio de Zumaia

36 urtetik gorako Zumaia bizilagunei eta gehienez urtean 28.000 euroko diru sarrerak dituztenei -eskatzaila pertsona bakarra den kasuetan - eta 38.000 euro haztatu -bizikidetzaren unitateen kasuan- dituztenei zuzentzen zaizkie. Halaber, laguntza hau diru sarreraren %30 edo gehiago alokairura bideratzen dutenei dago zuzenduta.

Estas ayudas están destinadas a habitantes de Zumaia mayores de 36 años y con ingresos anuales inferiores a 28.000 euros anuales si es un solicitante y 38.000 euros anuales en caso de unidades convivenciales. Además, las ayudas están destinadas a aquellas personas que destinen al menos el 30% de sus ingresos para pagar el alquiler

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da diru-laguntza, eta onuradunak ordaindu beharreko ohiko etxearen alokairua ordaintzeko erabiliko da. Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko alokairu gastuak kontuan izango dira, betiere deialdia egiten den urtekoak. Alokairu kontratua gutxienez urtebetekoa izan behar du.

La ayuda se tramitará y concederá en función de las condiciones establecidas en estas bases, y se utilizará para que la persona beneficiaria abone el alquiler de su vivienda habitual. Se tendrán en cuenta los gastos de alquiler generados desde el 1 de enero del año en que se realice la convocatoria hasta el 31 de diciembre. El contrato de alquiler tendrá que ser como mínimo de 1 año.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garaje bai eta kontribuzio edo zerga

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a



kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo kontribuzio edo zerga gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

2.artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 25.000 eurokoa izango da, eta hori 2025 urterako Zumaia Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honetatik egingo da:

1 1200.480.152.20.01 2026 "Alokairuak sustatzeko dirulaguntza".

Zenbateko hori agortuz gero, osatu ahalko da 18 eta 35 urte bitartekoei zuzendutako dirulaguntzen deialdian aurreikusitako diru kopuruarekin, dirua soberan geratu bada.

3. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.

— Dokumentazioa.

Deialdi honetako eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira eskabideak, eta udaleko sarrera-erregistroan edo haren web-orrian jaso ahal izango da eredu hori.

Eskabidearekin batera, oinarri orokorren 8.

garaje así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler, un valor fijo de 30 euros por garaje o contribuciones y arbitrios descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos

Artículo 2. Partida y dotación presupuestaria.

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 25.000 euros correspondiente a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Zumaia para el año 2025:

1 1200.480.152.20.01 2026 "Subvención para fomentar los alquileres".

En caso de agotar dicho importe, se podrá completar con el importe destinado a la convocatoria de subvenciones destinadas a jóvenes de entre 18 y 35 años, siempre que haya sobrado dinero.

Artículo 3. Documentación y plazo para la presentación de las solicitudes.

— Documentación:

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud de esta convocatoria, que se podrá recoger en el registro de entrada del Ayuntamiento o en su página web

Junto a la solicitud, deberá



artikuluaren zerrendatutako agiriak aurkeztu beharko dira. Dena den, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ordenantza arautzailearen arabera, interesdunek kontrakotasuna adierazi ezean, laguntza hau kudeatzen duen organoak beharrezko datuak egiaztatuko edo ziurtatuko ditu, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez.

— Eskariak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2026ko irailaren 30 arte izango da.

4.artikulua.Justifikatzeko agiriak eta aurkezteko epea.

2026ko abenduaren 31 baino lehen onartuko den ebazpenean, lehen ordainketa eta bakarra aginduko da, data horretaraino dagozkion ordainagiriaren arabera.

Justifikatzeko falta diren agiriak, bere osotasunean, diruz lagunduko den hamabi hilabeteko epealdia amaitu ondoren aurkeztuko dira, eta edonola ere 2027ko urtarrilaren 15 baino lehen.

Aurkeztu beharreko egiaztatze agiriak oinarri orokorren 8. artikuluan zerrendatutako agiriak izango dira.

5.artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.

Prozeduraren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta eman eta

presentarse la documentación establecida en el artículo 8 de las bases generales. Sin embargo, En virtud de lo establecido en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la ordenanza reguladora de estas ayudas, el órgano que gestiona esta ayuda constatará o verificará los datos que siguen, tanto por medios electrónicos como por otros medios que estén disponibles, salvo oposición expresa de la persona interesada.

— Plazo de presentación de solicitudes:

El plazo de presentación de las solicitudes comenzará el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 30 de septiembre del 2026.

Artículo 4. Documentación justificativa y plazo para su presentación.

En la resolución de la convocatoria que se realizará con anterioridad al 31 de diciembre de 2026, se ordenará un primer y único pago de la ayuda, proporcional a los justificantes de pago presentados hasta la fecha.

La totalidad, en su caso, del resto de documentación justificativa, deberá presentarse una vez finalizado el periodo de doce meses subvencionables, y en todo caso, antes del 15 de enero de 2027.

La documentación justificativa será la que se relaciona en el artículo 8 de las bases generales.

Artículo 5. Resolución y notificación.

La resolución del procedimiento pondrá fin a la vía administrativa y el



jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 43. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da.

— Organo eskudunak:
Instrukzioa eta proposamena: Idazkaritza
Ebazpena: Alkatetzak

6. artikulua. Errekurtsoak.

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeiko hautazko errekurtsoa aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzeokoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

plazo máximo para resolver y notificar la misma no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

La resolución del procedimiento se notificará a las personas interesadas de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 43 de la citada ley.

— Órganos competentes:
Instrucción y propuesta:
departamento de Secretaría
Resolución: Alcaldía.

Artículo 6. Recursos.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso- administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso- Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso- administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.